


LIBURUAK

Mailua ageriago

Mailuka etorri zaigu berriz ere Aristi, azken liburuetan egin duen bezala. *Libreta horiko poemak* liburua gogo onez hartu zuten irakurleek. Poesia egiteko modu erraz baina mamitsua ekarri zuen Aristik lan horretan, eta jendeari gustatu zitzaion hori. *Gauza txikien liburua* etorri zen gero; eta hor, poesia ez ezik ipuinak eta bestelako kontakizun laburrak ere bildu zituen, mailua eskuan beti. Liburu horrek ere harrera ona izan zuen irakurleen artean, Beterriko Liburu saria ere eman zioten eta.

Jendearen erantzun on horrek bultzatuta edo, *Noot book* idatzi du orain. Eta izenburua eta azala —koaderno orri bat da— ikustea nahikoa da zeri buruzkoa behar duen asmatzeko, begi bistakoa baita *libreta* haren oihartzuna.

Arian-arian, trilogia ateratzaio Aristiri; nahi gabe aterate, idazleak berak adierazi duenez. Eta liburu hau irakurritan, batek pentsatzen du laugarrena eta bosgarrena ere aterako lituzkeela, horretara jarritz gero. Etorria, behintzat, ezin ukatuko zaio. Hala dio Aristik berak liburua-

**'NOTEBOOK'**

Egilea: Pako Aristi.
Argitaletxea: Erein.
Urtea: 2005.

ren ataletako batean: idazten jarrita gauza dela orriak eta orriak betetzeko, eta horregatik jarri diola neurria liburu honi, behar baino gehiago ez luzatzeke eta esan beharrekoari ahal den mami gehiena ateratzeko. Hori dela eta, folioaren neurria ekarri ditu *Ordu txepela* ez beste atal guztiak —eta badira beste 75.

Egunkarian idazten zituen zutabean tankera ere badute liburu honetan bildutako idatziek, eta, dudarik gabe, ondo trebatuta dago Aristi halako testuak idazten. Baina, beharbada, azkenaldian idazten ari den literatur-

moldearekin lotuta dago hautu hori. Literatura bera ez da helburua Aristientzat, zer bait lortzeko bitartekoa baizik. Literatura soziala egiten ari da, eta irakurlearen kontzientzia eragin nahi du; zer pentsatua eman nahi dio, begiak irekiarazi, eta, ahal bada, gizartearen martxa zorotik atera eta bizitzaren benetako balioetara ekarri. Eta hitza du gizartea kolpatzeko mailu, behinola tarte honetan bertan *Gauza txikien liburua*-ri buruz esan bezala. Horretarako, ordea, gauzak erraztu behar zaizkio irakurleari, eta erretoilikak saihestu.

Hala ere, legea jartzen duenak tranpa jartzen omen du, eta folio batean kabitu ez zaiona beste batean sartu du Aristik, bere hitz-jarioari kanila guztiz itxi gabe. Izan ere, gaiak errepikatu egiten dira han eta hemen, ia modu obsesiboan: kontsumismo itsua, gizartearen nora eza, idazlearen ofizioa eta esperientzia, albiste ez diren albisteak... Koherentzia falta ere askotan salatzen du, eta, hain zuzen, *zazpi hitz* egin ditu horretaz. *Zazpi* dira, halaber, gure munduaren iraultzari buruz esandakoak.

Gaiak ez dira berriak. Batera

edo bestera, *Libreta horiko poemak* eta *Gauza txikien liburua* lanetan jorratutakoak dira gehientzuenak. Mezu berbera, beraz, hainbat modutara kontatua, errepikatzearen errepikatzeaz berak hain argi ikusten duena jendeari ikusaraziko ote dion edo. Eta esango nuke liburukit liburrura gero eta fikzio gutxiago dagoela, eta iritzia eta egunero kontu txikiak, berriz, gero eta gehiago. Bestela esanda: literatura gero eta ezkutuago eta mailua ageriago dagoela.

Azken batean, gauza bakarra eskatzen die Aristik liburuei: «bizitza ulertzen laguntzea». Eta berak ere, hainbeste eskatzen duen koherentzia horretan kolpe huts egin gabe, horixe egiten du bere liburuekin ere: bizitzan ikasitakoa kontatu, inori ezer ulertzen laguntzen badio ere.

Literatura eta gai aldetik, beraz, ez du ezer berririk ekarri, baina idazlearen zintzotasun eta gizartearekiko konpromisoa aurkituko ditu, berriz ere, irakurleak. Hori bai: trilogia honekin orain arteko bidea itxi du nolabait, eta hurrena zer ekarriko duen ikusi behar. **Maider Ziaurritz**

**'HARIZPEKO NESKAREN AFERA'**

Egilea: Juan Jose Ispizua
Hormaetxea
Argitaratzailea: BBK
Fundazioa eta Euskaltzaindia
Urtea: 2005

Busturialdean kokatuko nobela beltz honek neska baten gorpuaren inguruan Priego ertzainak egin beharreko ikerketa kontatzen du. BBK sariko epaimahaiaren arabera, «maisutasunez» kontatu ditu gertakariak eta behar den unean isilatasuna gordetzen jakin du egileak.

**'GARALEA'**

Egilea: Peter B. Kyne
Itzultzailea: Anonimoa
Edizio egilea: Inazio Mujika Iraola
Argitaratzailea: EIZIE
Urtea: 2005

Itzultzaile aitzindariari eskainitako bilduman 1935ean *Argia*-n ateratzen zuten *The Go-Getter*-en itzulpena Mujika Iraolak apailaturik berrargitatu dute. Gipuzkoako euskararen eginiko itzulpena Joxe Migel Zumalabek edo haren anaia Agustinek egin duenaren susmoa du edizio egileak.

**'KNOSSOS-eko ONDAREA'**

Gidoigilea: Pello Gutierrez
Marrakziak: Daniel Redondo
Argitaletxea: Saure
Urtea: 2005

Duela lau mila urteko aitzakora baten lapurretara argitzera joango da Aritz pilotaria bere bigarren abenturan. Mexikon bizi izan zituen lehen gorabeherak Aritz euskal heroia eta oraingo Knossos gaztelura joan beharko du. Eider kontuak eramaten dizkiona, eta Joxe, botilerora, ondoan izango ditu, abenturei gatza eta piperra jartzeko.

Kartzela hobi

Marokoko erregea hiltzeko saioa egin zuen armadako ofizial talde batek Sji-rat-en 971ko utzailaren 10ean. Urtebetez eguna zuen monarkak eta, antza, hari «eskuerakutsia» bertatik bertara egitea zuten asmo maxinatuek.

Diote, irriti esatariak monarkiaren azkena aldarrikatu zuela eta jende asko erabat hartu zuela izuak. Ba omen zekiten, ondo asko ere, erregearen udako jauregian prantatu ziren militarrek zer kapazidade zekaten kriminalkeriak egiteko.

Marokok ozta-ozta egin omen zion itzuri errejimeng faxistari, matxinatuak azpiratu egin zituzten eta. «Oraintxe ez dakit errege-guardiari errenditu ginen, hau da, errebeldeei pertsegitzen zieten errenditu ginen, edota haizeak bestaldera egiten zuela konturatu zirenean bandoa aldatu zuten ofizialek atxilotu eta desarmatu gintuzten. Ez genuen ezer esatekorik. Soldadu basterik ez ginen, pioiak, ekimenik izateko adina muntarik ez genuen subofizialak. Eskuak atzean lotu eta kamioietara bota gintuzten, hildako eta zauritutako

**'EL BUEN NOMBRE'**

Egilea: Tahar Ben Jelloun.
Argitaletxea: RBA.
Urtea: 2001.

pila artean. Nire burua bi soldadu hildakoren artean harrapatuta geratu zen. Haien odolak nire begiak bustitzen zituen. Beroa zen artean. Nazka izateko eskubiderik ba ote nuen? Bilisa egin nuen oka. Zertan pentsatu ohi du aurpegiaren beste guztien odola daraman gizonak?... Bere gorputza uztera ahalegintzen da, han ez egoten, lotan dagoela eta amesgaiztoa duela bere buruari esaten».

Matxinadaren ondorio, ofizialek *manu militari* galbidera eraman zituzten hogeita hiru soldadu bizargabeko, ziegara.

Ziega ilunetara, ziega itsuetara, ziega sekula betikoetara... Eze-rezaren erdian. Eremuan. Eskubiderik ez den zulora, hilik irtekeoa basterik.

Soldadu preso hartu haiek hemezortzi urte egin zituzten Tazmamart-eko kartzelan, Marokoko eremurik basa eta gorriean... Hemezortzi urte eta gero, senideek, bizirik irauten zuten gizajoak infernuko zulo beltzetik argira ateratzea lortu zuten. Urteak geroago, Tahar Ben Jelloun idazleak haietako baten testigantzak bildu zituen, liburu izugarri beldurrezko honetan. 2002an, Dublinen, IMPAC nazioarteko literatura sarria irabazi zuen lana. 200 orrialdeko liburua, denak kargaz beteak. «Gaua ez zen abaitzen, esan ohi den bezala, bertan zegoen, denbora guztian». «Hilobia, berez, ziega bat zen, hiru metro luze, metro eta erdi zabal. Baxua zen batez ere, metro berrogeita hamar eta metro hirurogei tartean. Ezin nintzen tenetatu. Zulo bat, kaka eta txiza egiteko. Hamar zentimetroko diametroa zuen zulo bat. Zuloa gure gorputzaren parte zen. Nahitaezko zen hura

bazela ahaztea, kaka eta txiza usainak ez sentitzea, ez sentitzea absolutuki». Liburuan ez da zeru, dena da infernu. Orrialde guztiak dira herio-erresuma. «Eta heriok eguzki errainu bikain baten itxura hartu zuen. Hiltzeko bota gintuzten hara, egia da. Zaintzaileen lana zen ahal zen arte gu heriotza aurreko egoeran irau-naraztea».

Izu-ikaratan irakurtzen den liburua. Larrazala oilo-ipurdi egina. Sufirimendua eta tortura. Heriotzaren etor beldurra. Hitzak galarazten dituen lana. Ekintza eske ari zaiguna, erraie-tatik. Tazmamart: Soria... Puerto Santa Maria. Langraitz... «Gartzelara sartu oro, heldua da hobira»...

«Zioten Estatu kolpeak eguzkiaren erruz egin zuela porrot. Indartsuegi jotzen zuen, argiegi. Beste batzuek oihi egiten zuten: 'Baina zer Estatu kolpe, gero! Odolean daramagu dibisa: 'Ala, aberria eta erregea'». Mendebaldeko zibilizazio aitzinatua ez da ezberdina.

Besteren buruko bartzia ikusten dugu, geure buruko zorria ez. **Miel A. Elustondo**